| **IKASGAIAREN izena**<br>1.5. Ahozko komunikazioa (english, euskara, castellano) | **Kreditoak**<br>6 ECTS. |
|---|---|

**Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**
Lehen MAILA eta lehen SEIHILEKOA

**Ikasleak ikasgai honekin eskuratzen dituen gaitasunak eta emaitzak**
**Gaitasun orokorrak:**

- **Ikasten ikasi:** autoezagutza (erronka-detekzioa ahozko komunikazioari eta autoerregulazioari dagokionez); antolakuntza-gaitasuna eta planifikazio-gaitasuna.
- **Enprendizajea eta berrikuntza:** gustua eta sormena azalpen formalean, eta teknologia-bitartekoen eta ikus-entzunezko bitartekoen erabileran.
- Talde-lana: trebetasunak landu pertsonen arteko harremanetan, helburuak modu koordinatuan planifikatu, lana egiteko orduan hartutako konpromisoak bete: epea, formatuak, lanaren kalitatea.

**GAITASUN ESPEZIFIKOAK**
- Eskuratutako informazioa aztertzeko, interpretatzeko, berregituratzeko eta adierazteko gaitasuna hizkuntzaren egokitasuna eta zuzentasuna bermatuz hiru hizkuntzetan (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez), eta beti ere komunikazio-egoera aintzat hartuz, hizkuntzalaritza testual eta diskurtsiboaren irizpide orokorren arabera.

***EZAGUPENAK***
- Ahozko komunikaziorako oinarrizko estrategiak ezagutu.
- Eraginkortasunez komunikatzeko behar diren interakzio-estrategiak ezagutu.
- **Bertako hizkuntzen eta ingelesaren ahozko zein idatzizko erabilera zuzenaren ezagutza**, hedabideetako adierazpen modu profesional gisa.

***TREBETASUNAK***
- Kode idatzia eta ahozko kodea berezi.
- Lokuzio eta ikus-entzunezko aurkezpen teknikak eta baliabideak aplikatu.
- Ahozko testuak sortu curriculumaren hizkuntza guztietan, zuzentasuna eta erregistroaren egokitasuna bermatuz.
- Autoerregulatzen jakin: autokonfiantza, jarrera irekia, desblokeatzea, kudeaketa emozionala.
- Ahotsa erabiltzen jakin: modulazioa, bolumena, ahoskera, kromatismoa, intonazioa, deklamazioa.
- Gorputza eta espazioa erabiltzen jakin (alderdi kinesikoak eta proxemikoak).
- Entzuten ikasi.
- Eskuratutako informazioa aztertzeko, interpretatzeko, berregituratzeko eta adierazteko gaitasuna hizkuntzaren egokitasuna eta zuzentasuna bermatuz hiru hizkuntzetan (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez), komunikazio-egoera aintzat hartuz hizkuntzalaritza testual eta diskurtsiboaren irizpide orokorren arabera.

**Ikasgaiaren ekarpena profil profesionalari**
Ikasgai honek hainbat hizkuntzatan ahoz komunikatzeko behar diren oinarrizko tresnak ezagutzeko, garatzeko eta erabiltzeko bidea eskaintzen dio ikasleari.
Ikasgaia profil hauen beharrizanetara egokitzen da: 1) Zuzendaria, gidoilaria eta ikus-entzunezko errealizadorea; 2) Ikus-entzunezko ekoizlea eta kudeatzailea; 3) Ikerlaria, irakaslea eta ikus-entzunezko ikasketetan aditua.

**Irakaskuntza-ikaskuntza metodologia, eta beronek ikasleak eskuratu beharreko gaitasunekin duen harremana.**
- Metodologiak ikaslearengan jartzen du arreta osoa: tailerrak, praktikak, tutoretzak.
- Elkarlanean oinarritutako metodologia.

**Hezkuntza-jarduerak.**
Jarduera presentzialak: - Eskola magistralak (%15).
(%40) -taldekako mintegiak-tailerrak (%20).

- tutoretzak (%5).

Jarduera ez-presentzialak: - ikasketa eta lan autonomoa (%40).
(%60) - taldekako ikasketa lan autonomoa (%20).

**Gaitasunak eskuratzeko ebaluazio-sistema**

- Ahozko aurkezpenak egitea, taldeka zein banaka, hiru hizkuntzetan.
- Estilo eta erabilera: diskurtsoaren egitura, ahotsaren erabilera, erregistroa, entzuleriaren arreta mantentzeko estrategiak, ikus-entzunezko lokuzio eta aurkezpen tekniken eta baliabideen erabilera kontuan hartuta.
- Honako irizpideak hartuko dira kontuan: sormena, zuzentasuna, egokitasuna, erantzukizun-zentzua.

**Edukien laburpena**

*Ahozko testuak sortzeko estrategiak.*

- Ahozko testuak sortzeko estrategien praktikak:
- Ozen irakurtzea: zenbait genero (albistea, erreportajea).
- Ahoskerarako arauak.
- Eredu eta praktiken analisia.
- Edukia eta forma.
- Diskurtsoaren arintasuna eta trantsizioak egitea.
- Ahotsaren eta komunikazio ez-berbalaren erabilera.
- Zuzentasun gramatikala eta egokitasun lexikoa.
- Entzuleriaren interesa mantentzeko eta sustatzeko estrategiak.
- Komunikazioaren alderdi emozionalak.
- Irakurketa ozena egiteko teknikak: erritmoa, isilaldia, arnasaldia, erlaxazioa, modulazioa, intonazioa, deklamazioa.
- Gorputz adierazpena eta dramatizazioa.
- Entzuketa aktiboa.